

# BIGARREN URRATSA: A2

## EBALUAZIO FROGA

### IRAKASLEAREN GIDA

#### AHOZKO ULERMENA / ENTZUMENA

**1. HELBURUA-** Elkartruke sinpleak, ohikoak, era errazean egiteko adina ulertzen du.

**4. HELBURUA-** Eguneroko bizitzako premia zehatzei irtenbidea emateko adina uler dezake, argi eta poliki hitz egiten bazaio.

#### 1.JARDUERA

Irakasleak zenbait eskaera eta eskaintza egingo dizkio ikasleari. Honen erantzunaren arabera jakingo du ikasleak ulertu duen ala ez.

Irakasleak poliki eta argi hitz egingo du, gehienez behin errepikatuz.

*-Zure boligrafoa utziko didazu, mesedez?*

*-Nik arkatza ematen badizut, zuk boligrafoa emango al didazu niretzat?*

*-Ondo dago, tratu bat egingo dugu: zuk boligrafoa ematen badidazu, nik bi arkatz emango dizkizut truke. Ados zaude?*

*-Ez dago zereginik orduan. Ez al duzu trukerik nahi?*

*-Etorriko al zinateke egun batean mendira?*

*-Gelako guztiak joan gaitzke eguna igarotzera? Zer iruditzen zaizu?*

*-Bazkaria eramango dugu eta bertako mendietan ibilaldi bat egingo dugu. Ados zaude?*

**2. HELBURUA-** Jendeak argi eta poliki hitz egiten badu, gehienetan, entzuten dituen elkarrizketetako gaiak identifika ditzake.

**3.HELBURUA-** Eskuarki gai ezagunei buruzko ahozko testu argi eta estandarra uler dezake, nahiz eta egoera errealean errepikatzeko eta berformulatzeko eskatu behar izan dezakeen.

#### 2. JARDUERA

Ikasleak telebistako bi iragarki entzun ondoren, galderei erantzungo die.

1. Zein ezaugarri onak ditu produktu honek?

---

Erosiko al zenuke? Zergatik?

---

2. Zein ezaugarri onak ditu produktu honek?

---

Erosiko al zenuke? Zergatik?

**5. HELBURUA-** Eremu akademikoko azalpen laburra uler dezake, gaia ezaguna bada eta argi eta poliki hitz egiten bada.

**7. HELBURUA-** Eguneroko gaiekin zerikusia duten grabatutako pasarte laburren informazioa uler dezake, argiak eta poliki esanak baldin badira.

### 3.JARDUERA

Ikasleak IKUSGELA 318 bideoko “ Euskal Herria ezagutu: Orio ” (4') atala entzun eta galdera hauei erantzungo die.

- *Eman itzazu Orioko bi pertsonaia ezagunen izenak.*
- *Non dago Orioko kanpina?*
- *Zenbat aldiz irabazi dute oriotarrek Kontxako bandera?*
- *Zein da Orioren jatorrizko izena?*
- *Zein dira Orioko jaiak?*

**6. HELBURUA-** Eremu akademikoko argibide sinpleak uler ditzake.

**9.HELBURUA-** Mezu eta oharren ideia nagusia identifika dezake, hauek labur, argi eta sinpleak direnean.

### 4.JARDUERA

Irakasleak hurrengo egunetarako etxerako lanak aginduko ditu. Ikasleak esandakoaren oharra hartuko ditu agenda orri hauetan:

ASTELEHENA 22 _____ _____ _____ _____	ASTEARTEA 23 _____ _____ _____ _____	ASTEAZKENA 24 _____ _____ _____ _____
---	--	---

*Agindutako lanak:*

- *Astelehenean 4. gaiko, 35. orrialdeko aditz ariketak egin.*
- *Asteartean bost lerrotako idatzi bat egin aste honetan gertatutako zerbait kontatuz.*
- *Asteazkenean “ Egunero ” liburuko lehen lau orrialdeak irakurri eta hitz ezezagunen esanahia hiztegian aurkitu.*

**8.HELBURUA** - Telebistako albisteetako gertaera, istripu eta abarrekoen ideia nagusia identifika dezake, iruzkinarekin batera ikusten den materiala dagoenean.

**10.HELBURUA-** Ezezagun diren hitz batzuen esanahia inferi dezake testuinguruaren arabera eta esaldiaren esanahia ulertu, gaia ezagutzen badu.

### 5. JARDUERA

Ikasleak telebistako albiste bat entzungo du. Ondoren galdera honi erantzungo dio:

Zer gertatu da?

## AHOZKO ADIERAZPENA / MINTZAMENA

1.- Eguneroko elkarrizketetan, familia eta lagunarteko gaiet buruzko elkarrizketetan hitz egin dezake.

2.- Denda eta bulegoetako elkarrizketa arruntak, informazio eskaerak eta demandak egin ditzake.

### 6.JARDUERA

Irakasleak elkarrizketa arrunta bideratuko du.

-Zein da zure zaletasuna? Zer gustatzen zaizu egitea aisialdian?

-Zergatik duzu gogoko/ gustuko?

-Noiz eta non praktikatzen duzu?

-Araoak al dituzu praktikatzeko?

3. **HELBURUA**- Telefonoz informazioa eska dezake.

### 7.JARDUERA

Ikasleak udaleku batera joan nahi du Bizkaira. Horretarako informazioa eskatu behar du telefonoz. Irakasleak emango dizkio erantzunak. Bizkaiko mapa baten laguntza izango du informazioa jasotzeko. Informazio hau jasotzeko telefonozko galderak egingo dizkio irakasleari:

- Bizkaiko udalekuen kokapena.
- Irekiera eta itxiera datak.
- Igaro daitekeen denbora.
- Antolatzen diren ekintzak



**4.HELBURUA-** Gai akademikoei buruzko galdera sinpleak egin ditzake.

#### 8.JARDUERA

Ikasleari idazle baten izena emango zaio, adibidez Bernardo Atxaga. Pertsonaiari buruzko galderak egingo ditu datu hauek jaso ahal izateko:

Jaioterria:

Jaiotze data:

Idatzitako liburu batzuen izenak:

**5 HELBURUA-** Gai akademikoei buruzko erantzun motzak eman ditzake.

#### 9.JARDUERA

Ikasleak testu hau irakurriko du. Ondoren, irakasleak egingo dizkion galderak erantzungo ditu

#### **SARDINA**

*Ozeano Atlantikoan eta Mediterraneoan bizi da. Sardatan elkaturik egiten du igeri eta ur bero eta gaziak ditu gustuko. Ezkata desberdinak ditu eta 25 cm-ko luzera izan dezake. Urtero sardina kopuru handia harrapatzen bada ere, arrain hau ez dago desagertzeko arriskuan.*

*(Natur Zientziak BH 1,Santillana zubia. 60. orr.)*

#### **GALDERAK:**

- *Zein itsasotan aurki dezakegu sardina?*
- *Nola egiten du igeri?*
- *Nolako ura du gustuko?*
- *Sardina desagertzeko arriskuan al dago?*

**6. HELBURUA-** Gertaera sinple eta laburra kontatu dezake.

#### 10.JARDUERA

Ikasleak lau bat bost esalditan berak edo bere familiako batek izandako istripu edo gertaeraren bat kontatuko du.

**7.HELBURUA-** Azalpen esplikatibo laburra eman dezake.

#### 11.JARDUERA

Ikasleak testu hau behar duen guztietan irakurri eta hiruzpalau esalditan azalduko du.

#### *Burdingintza Euskal Herrian*

*Erdi Aroan burdina burdinoletan egiten zen. Hasieran burdinolak mendietan kokaturik zeuden. XIV. mendetik aurrera haranetan kokatu ziren. Burdinoletan nekazaritza eta arrantzarako tresnak, ontziak eta armak egiten zituzten.*

*(Ostadar, Gizarte Zientziak DBH 2, 82 orr., Elkar GIE)*

## 8.HELBURUA- Iritzi simple bat eman dezake.

### 12.JARDUERA

Irakasleak galderak egingo ditu ikasleak iritzi eta arrazoiren bat eman dezan.

- Zein iritzi duzu Inauteriei buruz?
- Gogoko al duzu jai hau? Bai / ez? Zergatik?

## IDATZIZKO ULERMENA / ENTZUMENA

**1.HELBURUA-** Hitz arruntenak , nazioarteko hitz arrunt batzuk barne direla, dituzten testu simple eta laburrak uler ditzake.

**2.HELBURUA-** Eguneroko hizkuntza arruntean idatzitako testu laburrak uler ditzake.

**3.HELBURUA-** Bere ikasketekin zerikusia duten azalpenezko edo narraziozko testu labur eta sinpleak uler ditzake.

### 13.JARDUERA


Ikasleak testua irakurri eta galderak erantzungo ditu:

#### ARNASKETA

*Arnasketaren prozesuaren bidez, organismoak bizitzeko behar duen oxigenoa hartzen du. Arnasketa arnas aparatua burutzen du. Arnas aparatua atal hauek ditu: arnasbideak eta birrikak.*

*Arnasketan bi mugimendu egiten dira: arnasa hartzea eta arnasa botatzea. Arnasa hartzean, airez betetzen dira. Arnasa botatzean, birikek airea kanporatzen dute.*

*(Natur Zientziak DBH 1, 90 orr., Santillana Zubia)*



GALDERAK:

- Zer egiten da arnasketa prozesuan?
- 

- Zein dira arnas aparatua atalak?
- 

- Zer egiten dugu arnasa hartzean?
- 

- Zer egiten dugu arnasa botatzean?
-

**4.HELBURUA-** Iragarki, esku-orri , menu eta ordutegiak bezalako eguneroko testu arruntetan informazio zehatza aurki dezake.

#### 14.JARDUERA

Ikasleak, iragarkia irakurri eta gero, ondorengo galderei erantzungo die.

### Gazteentzako ikastaroak antolatu dira



Arrasateko Udalak **gazteentzako hainbat ikastaro** antolatu ditu otsailetik aurrera. Horien artean, **txalaparta, sabel dantza, alboka eta argazkigintza** dira aukeran jarritakoak. Beraz, interesa izanez gero, **Gazte Bulegoan** eman behar da **izena**.

Hona hemen Udalak gazteentzako antolatu dituen ikastaroak:

#### TXALAPARTA

- **Emailea:** Ttakun taldea
- **Maila:** Hastapen eta sakontze mailak
- **Egunak:** Otsailaren 6tik maiatzaren 14ra
- **Ordutegia:** Ostiraletan (20:00-22:00) eta larunbatetan (11:00-13:00)
- **Lekua:** Musakolako Saloian
- **Prezioa:** Matrikula: 18 euro / Ikasle eta langabeek 12 euro

#### SABEL DANTZA

- **Emailea:** Jaione Albeniz
- **Maila:** Hastapen eta sakontze mailak
- **Egunak:** Otsailaren 28tik apirilaren 3ra
- **Ordutegia:** Larunbat goizetan (10:00-12:00) eta (12:00-14:00)
- **Lekua:** Musakolako Kiroldegian
- **Prezioa:** Matrikula 18 euro / Ikasle eta langabeek 12 euro

#### ALBOKA

- **Emailea:** Angel Agiriano
- **Maila:** Hastapen eta sakontze mailak
- **Egunak:** Martxoaren 6tik San Juanak arte
- **Ordutegia:** Larunbat goizetan hiru txanda: 10-11 / 11-12 / 12-13
- **Lekua:** Arrasate Musikalen
- **Prezioa:** Matrikula 18 euro / Ikasle eta langabeek 12 euro

#### ARGAZKIGINTZA

- **Emailea:** Jon Ruiz de Zarate
- **Maila:** Hastapen maila
- **Egunak:** Martxoaren 29tik maiatzaren 17ra
- **Ordutegia:** Astelehen eta asteazkenetan (18:30-21:00)
- **Lekua:** ASA elkartearen lokalean
- **Matrikula:** 18 euro / ikasle eta langabeek 12 euro

Izen emateak: **GAZTE BULEGOAN (943-770065)**

## GALDERAK:

- Nork antolatu ditu ikastaroak?

---

- Zein ikastaro antolatu dituzte?

---

- Non eman behar da izena? Zein da telefono zenbakia?

---

- Larunbat goizetan zein ikastaro egin dezakezu?

---

- Zein da ikastarorik garestiena?

---

**5.HELBURUA-** Gutun, esku-orri eta gertaerak deskribatzen dituzten egunkariko artikulua laburrak bezalako testuetan informazio zehatza identifika dezake.

## 15.JARDUERA

Ikasleak artikulua irakurri eta galderei erantzungo die.

### ISTRIPUA

## Hiru lagun zauritu dira Lasarten, autobus batek eta bi autok elkar jo ondoren

Hiru lagun zauritu dira gaur goizean N-1 errepidean, Lasarte parean, Donostia-Tolosa lineako autobusak eta bi autok elkar jo eta gero. Istripua goizeko 8:30ean gertatu da, bidaiariz beteta zihoan autobusak Seat Ibiza eta BMW motako bi autorekin jotzean. Kolpearen ondorioz, autobusa errepideko ezkerreko karrilean geratu da, eta bi kilometroko auto-ilarak eragin ditu Donostiarako norabidean.

*(Berria 04/03/05 egokitua)*

## GALDERAK

- Zenbat ibilgailuk egin zuten talka istripu honetan?

---

- Zenbat jende zihoan autobusean?

---

- Non geratu da autobusa?
- 

- Ze luzera dute auto ilarek?
- 

**6.HELBURUA-** Gutun pertsonal laburrak uler ditzake.

**7.HELBURUA-** Ohiko gutun estandarrak eta gai ezagunei buruzko faxak uler ditzake.

## 16.JARDUERA

Ikasleak gutuna irakurri eta galderei erantzungo die.

Santurtzi, 04-03-06

Aspaldiko adiskidea:

Zer moduz zabilta zure lanbide berrian?. Izango duzu zerbait berririk kontatzeko, proiekturen bat edo amorante zoragarriren bat.

Noiztik ez gara elkartu? Sei edo zazpi hilabete dira elkar azkeneko aldiz ikusi genuenetik. Eta orduan kalean gurutzatu eta bost minutu eskas egon ginen.

Orduan elkarri "egongo gara" eta "deituko dizut" esan genion. Baina, oraindik ez gara elkarrekin egon, eta ezta deitu ere. Horregatik gutun bat idaztea pentsatu dut.

Idaztea, ordea, kostatu egiten zait. Gainera, ez daukat kontatzeko gauza handirik. Beno, izatekotan, goizetan korrika egitera joaten naizela orain, hori besterik ez.

Elkar oso gutxi ikusten dugun honetan, zergatik ez eman elkarren berri gutun bitartez? Gauza txikiak kontatzeko besterik ez bada ere.

Nahi duzun arte.

*Aitor Ugalde*

( [www.santurtzieus.com](http://www.santurtzieus.com) helbidetik hartuta eta laburtua)

**GALDERAK:**

- Noiztik ez dira bi lagunak elkartu?
- 

- Zenbat denbora egon ziren elkarrekin?
- 

- Zergatik pentsatu du Aitorrek gutuna idaztea?
- 

- Zer kontatzen dio Aitorrek bere lagunari?
- 

- Zer nahi du Aitorrek?
-

## IDATZIZKO ADIERAZMENA / IDAZMENA

**1.HELBURUA-** Gertaera eta ekintzei buruzko oinarrizko deskribapen arruntak egin ditzake.

**2.HELBURUA-** Harreman pertsonaletako gutun oso sinpleak idatz ditzake, esker ona eta barkamena adieraziz.

### 17.JARDUERA

Ikasleak Aitorren gutunari erantzungo dio beste gutun baten bidez. Gutunean asteburuan egindako mendi irteera kontatuko dio hiru paragrafotan, 6-8 lerrotan.

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

**3.HELBURUA-** Oharrak eta testu labur eta sinpleak, eguneroko bizitzako gaiekin zerikusia dutenak, idatz ditzake.

**4.HELBURUA-** Planak eta proiektuak deskriba ditzake.

**5.HELBURUA-** Zerbaiti buruz gogoko duena eta ez duena azal dezake.

### 18.JARDUERA

Ikasleak oportetako egun batean egiteko asmoa duena kontatuko du bost lerrotan.

---

---

---

---

---